



### Lana / La obra

Nobela honek XX. mendearen erdialdeko landa-giroan jaiotako bi neskatilaren abenturak kontatzen ditu, haietako baten ahotik eta ikus-pegitik, modu xume eta errealista batean. Caitheen eta Baba dira protagonistak, umetako lagun bi, ezin diferenteagoak biak. Caitheen baserrian bizi da, etxeko diru-sarrera apurrak jokoan eta edanean xahutzen dituen aita alkoholikoarekin, eta etxea ahal duen moduan gobernatzen ahalegintzen den ama nahigabetuarekin. Baba, bestalde, herriko albaitariaren alaba da, neskato harroputz eta berekoaia, etengabe Caitheen mespretxatzen dabilena. Batzuetan etsai, bestetan lagun min, biek ala biek desio bat dute: sorterritik hanka egitea, gizarteak ezarria dien patuari uko egin eta beraiek erabakitako moduan bizitzeko.

Caitheenen eta Babaren bidez, O'Brienek bozgorailua jartzen die urteetan isilaraziak izan ziren irlandar emakumeei, eta haien bitartez esperimenta dezakegu sasoi hartako bizilege klaustrofobikoa. Badirudi protagonistak jakitun direla gizarteak inposatu dizkien rolak ez direla eraikuntza bat besterik, eraikuntza bat Estatuarena, non Elizaren eta patriarkatuaren arau zurrunez tankeratzen, mugatzen eta erreprimitzen baitute emakumezkoen identitatea. O'Brienek, bere lehen nobela honekin, feminitatearen kontzeptua, amodio erromantikoa mitoia eta gizarteak ezarritako rolak deseraikitzen ditu.

### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Landa aldeko neskek**

Egilea / Autora: **Edna O'Brien**

Itzultzailea / Traductora: Gema López Las Heras

Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 182

ISBN / EAN: 978-84-9109-679-5

Salneurria / Precio: 17 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 304

Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 13 x 19,5 cm

Materia: Helduentzako literatura - Literatura para adultos

### Egilea / Autora

**Edna O'Brien** (Tuamgraney, Irlanda, 1930) ingelesezko nobelagintzaren ahots sonatuetako bat da, kritikariak eta gaur egungo idazle prestigiotsuenek goraiatua. *Landa aldeko neskek* nobelarekin (1960) ekin zion literatur ibilbideari, eta mundu osoan lortu zuen ospea hari esker. Harrezkero, corpus zabal eta askotarikoa argitaratu du: *The Country Girls* trilogia osatzen duten *The Lonely Girl* (1962) eta *Girls in their Married Bliss* (1964) liburuak, *A Pagan Place* eleberria (1970), Virginia Woolfi buruzko *Virginia* antzezlan (1980), *Saints and Sinners* ipuin-liburua (2011), eta James Joyceri eta Lord Byroni buruzko biografiak, besteak beste.

### Itzultzailea / Traductora

**Gema Lopez Las Heras** (Azkoitia, 1989). Itzulpengintza eta Interpretazioan lizentziatua, itzultzaile eta zuzentzaile lanetan aritu da orain arte. Gaur egun, itzultzaile dabil Eusko Jaurlaritzan. Hauxe da aurreneko itzulpen literarioa.

